ASIER GIL ARTUCH Erronkaribarko Batzorde Nagusiko idazkariak,

ZIURTATZEN DUT: Erronkaribarko Batzorde Nagusiak 2022ko abuztuaren 24an egin Ohiko Osoko Bilkuraren aktak hitzez hitz ondokoa jasotzen duela:

"2022ko abuztuaren 24ko 12:00etan, Urzainkiko udaletxeko bilkura-aretoan, Erronkaribarko Batzorde Nagusiak Ohiko Osoko Bilkura egin du, Asier Gil Artuch idazkaria izanik eta Eneko Egiguren Ruiz Batzordeburu dela, bera eta Virginia Atanes Galech Urzainkiko udaleko alkateordea Urzainkiko ordezkari gisa agertuz.

Gainerako herrien izenean ondoko ordezkariak bertaratu dira:

UZTARROZE: Jone Alastuey Garcia
IZABA: Carlos Anaut Abadia
ERRONKARI: Amparo Viñuales Gale eta Jesus Cruchaga Mainz
GARDE: Jose Javier Echandi Sarries
BURGI: Elena Calvo Petroch
BIDANKOZE: Tomas Pasquel Ayechu

Batzordeburuak bilkura hasi eta gai-zerrendari jarraiturik honako erabaki hauek hartu dira:

1. PANIFIKATUETAN LIBREKI LARRATZEKO DATA EZARTZEA

Ohiko gaiari dagokionez, hau da, Panifikatuetan libreki larratzeko data ezartzea, ordezkarien argibideak eta azalpenak entzun ondoren, Mankomunitatearen Ordenantzetan ezarritakoarekin eta gaiari buruz hartutako erabakiekin bat eta ohiturari jarraikiz,

DON ASIER GIL ARTUCH, Secretario de la Junta General del Valle de Roncal,

CERTIFICO: Que el Acta de la sesión ordinaria celebrada por la Junta General del Valle de Roncal, el día veinticuatro de agosto de dos mil veintidós, dice literalmente como sigue:

"En la Sala Consistorial del Ayuntamiento de la villa de Urzainqui, siendo las 12 horas del día veinticuatro de agosto de dos mil veintidós, con asistencia del Secretario D. Asier Gil Artuch y bajo la Presidencia del Sra Teniente-Alcalde de la villa de Urzainqui Virginia Atanes Galetx, que concurre representando a esta villa junto con D. Eneko Eguiguren Ruiz, se reúne la Junta General del Valle de Roncal, en sesión ordinaria, concurriendo por las demás villas la representación siguiente:

POR UZTÁRROZ: Dña. Jone Alastuey García
POR ISABA: D. Carlos Anaut Abadía
POR RONCAL: D. Jesus Cruchaga Mainz y Dña. Amparo Viñuales Gale
POR GARDE: D. José Javier Echandi Sarriés
POR BURGUI: Dña. Elena Calvo Petrotx
POR VIDÁNGOZ: D. Tomás Pasquel Ayechu

Abierta la sesión por la Sr. Presidente y siguiendo el orden del día, fueron adoptados los siguientes acuerdos:

1. FIJAR FECHA PARA LA LIBRE PASTURACIÓN DE LOS PANIFICADOS

Sobre el asunto Ordinario referido a fijar fecha para la libre pasturación o Suelta de los Panificados, a la vista de las informaciones y manifestaciones de las distintas representaciones y en conformidad con lo estipulado en los Ordenanzas de la Mancomunidad y acuerdos adoptados sobre el particular, se acuerda dar la Suelta de los Panificados mañana al amanecer, según costumbre.

panifikatuak bihar goizaldean libre uztea erabaki da.

2. ADMINISTRARI LAGUNTZAILEAREN ESKAERA

Amaia Larumbe Torranok aurkeztutako idazkia irakurri da. Honela dio:

«Erronkaribarko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren egoitzak Izabako Osasun etxean (gizarte-langilearen eta administrari laguntzailearen bulegoak) eta Erronkariko kamineroen etxean (gizarte-hezitzailearen bulegoa) daude.

Gaur egun, espazio nahikorik ez dagoenez, ezin dira elkartu hiru langileak egoitza berean. Administrari laguntzaileak bere zereginetan beste bi lankideekin lan egin behar duenez, Batzorde Nagusiari proposatu nahi dio 2022ko irailaren 1etik aurrera bi egoitzetan lan egitea, lanaldia honela banatuta: Astelehen, ostegun eta ostiraletan Izabako bulegoan, eta astearte eta asteazkenetan Erronkariko bulegoan."

Azaldu da gizarte-hezitzailearekin hitz egin dela eta hark ez duela eragozpenik ikusten; aitzitik, beharrezkotzat jotzen du.

Idazkia irakurrita, Batzordeak gehiengoz erabaki du eskaera onestea, Uztarroze, Urzainki, Garde, Burgi eta Bidankozeko ordezkarien aldeko botoekin eta Erronkari eta Izabako ordezkarien abstentzioarekin. Aldez aurretik, Erronkariko kamineroen etxean egokitzapen-lanak egin beharko dira.

Erronkariko eta Izabako ordezkariek adierazi dute ados daudela, baina uste dute

2. SOLICITUD AUXILIAR ADMINISTRATIVA.

Se da lectura del escrito presentado por Dña. Amaia Larumbe Torrano, que dice como sigue:

"El Servicio Social de Base del Valle de Roncal en su estructura administrativa está ubicada con una oficina de la Trabajadora Social en el Centro de Salud de Isaba, una oficina de la Auxiliar Administrativa en el Centro de Salud de Isaba y otra oficina de la Educadora Social situada en el piso de los camineros en Roncal.

Actualmente y debido a la falta de espacio no se puede agrupar a las tres figuras en una misma ubicación. La Auxiliar Administrativa debe trabajar con las dos figuras en sus tareas administrativas el tiempo de jornada laboral. Por ello se propone a la Junta General del Valle de Roncal, el trabajo de la Auxiliar Administrativa compartido entre los dos lugares. A partir del 1 de septiembre de 2022 se propone lo siguiente: lunes, jueves y viernes la Auxiliar Administrativa estaría en la oficina de Isaba y martes y miércoles en la oficina de Roncal para así poder realizar todo el trabajo."

Se expone que se ha hablado con la Educadora Social respondiendo ella que no ve inconveniente y se ve necesaria

La Junta a la vista del presente escrito acuerda por mayoría, con los votos a favor Uztarroz, Urzainqui, Garde, Burgui, Vidangoz y abstención de Roncal e Isaba acceder a lo solicitado una vez se acondicione el espacio para ello en la oficina de Roncal situada en los camineros.

Las representaciones de Roncal e Isaba entienden la petición y están de acuerdo con ella pero entienden que antes de tomarse la decisión debía haberse contrastado la misma

erabakia hartu aurretik gizarte-langilearekin hitz egin eta haren iritzia jakin behar dela, gaizki ulertuak saihesteko. Erronkariko ordezkariak azpimarratu du hori dela abstenitzeko arrazoia.

3. IRATI IRRATIAREKIN LANKIDETZA-HITZARMENA SINATZEA, SEINALEA HARTU ETA EMITITZEKO.

Irati Irratiaren seinalea ibarrera hedatu ahal izateko, egin beharreko lankidetza-hitzarmen proposamenaren berri eman da, 2021ean Pirinioetako planaren lurralde-eremuan dauden toki-erakundeentzako dirulaguntzen deialdira (lurralde-garapen iraunkorreko proiektuetan inbertitzeko 2021., 2022. eta 2023. urteetan) aurkeztutako proiektuaren arabera.

Batzorde Nagusiak aho batez erabaki du hitzarmena onestea, eta espedientean artxibatu egin da.

4. BANDA ZABALA EZARTZEKO OBRAK FINANTZATZEKO ESKATUTAKO KREDITUA AMORTIZATZEKO AUKERA.

Batzordeburuak azaldu duenez, Proiektu Estrategikoen zuzendari nagusiak gastua baimendu ondoren eta Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoen Departamentuarekin egindako hitzarmena sinatu ondoren, ordaintzeko eskaera eta gastuen justifikazioa egin dira.

Zuzendari nagusiak hasiera batean baimendutako gastu-kopurua (370.000,00 euro) ordaintzeko agindua emateak aukera emango luke 250.000 euroko kreditua amortizatzeko, Batzorde Nagusiak 2021eko

con la Trabajadora Social y recoger su opinión para evitar malos entendidos. La representación de Roncal insiste en que esta es la razón de su abstención.

3. FIRMA DE CONVENIO DE COLABORACIÓN CON IRATI IRRATIA PARA LA CAPTACIÓN Y EMISIÓN DE LA MISMA.

Se pone en conocimiento de esta Junta la propuesta de convenio de colaboración a celebrar con IRATI IRRATIA para hacer posible la extensión de las emisiones de Irati Irratia al Valle de Roncal de acuerdo al proyecto presentado en el año 2021 a la convocatoria de subvenciones a entidades locales inscritas en el ámbito territorial del plan del pirineo, para inversiones en proyectos de desarrollo territorial sostenible durante los años 2021, 2022, y 2023.

El convenio, que queda reflejado en el expediente de su razón es aprobado por unanimidad por la Junta General del Valle de Roncal

4. POSIBILIDAD DE AMORTIZACIÓN DEL CREDITO SOLICITADO PARA LA FINANCIACIÓN DE LAS OBRAS DE INSTALACIÓN DE LA BANDA ANCHA EN EL VALLE DE RONCAL.

Se expone por parte del Presidente de la Junta que tras la Autorización del Gasto por parte del Director General de Proyectos Estratégicos y tras la firma del Convenio celebrado con el Departamento de Ordenación Territorio, Vivienda, Paisaje y Proyectos Estratégicos del Gobierno de Navarra se ha procedido a realizar la solicitud de abono y la justificación de los gastos.

Tras esta solicitud, únicamente queda esperar a la resolución de dicho Director General ordenando el abono de la cantidad de gasto autorizada inicialmente (370.000,00 euros), lo que posibilitaría, una vez se reciba el

martxoaren 30eko Osoko Bilkuran hartutako erabakiari jarraikiz Nafarroako Rural Kutxari eskatu zitzaiona.

Gainera, Batzordeak aurreko urteetan baino diru-sarrera handiagoak espero ditu, abuztuaren 5ean enkantean jarri ziren bi egur-sailei esker.

Mahaiaren gainean jarri da Erronkaribarko etxea birgaitzeko aukera.

Gaia eztabaidatu ondoren, Batzorde Nagusiak uste du informazio gehiago behar duela erabaki irmoa hartzeko, eta erabaki du Nafarroako Gobernuko aholkularitza ekonomikoari eta Nafarroako Rural Kutxari egon daitezkeen aukerei buruz galdetzea. Horretarako, hurrengo Osoko Bilkuran lantalde bat eratuko da, gutxienez 4 herritako ordezkariek osatua.

5. ARGARAIAKO BASO-APROBETXAMENDUA ZUZENEAN ESLEITZEA

Aurreko urteetan zenbait egur-sail esleitu gabe geratu zirenez, FORESNA-ZURGAIA Basogintza Elkartearekin harremanak egin dira (Batzordea elkarte horren kide da), horiek saltzen laguntzeko.

Joan den ekainaren 9an, FORESNA-ZURGAIAk gonbidapena egin zien hainbat enpresari, Batzorde Nagusiaren 2018ko mozketen planaren 2. egur-sailerako eskaintza aurkez zezaten.

Balorazio ekonomikoari buruzko aldeko txostena eskatu zitzaion Nafarroako Gobernuko Baso eta Ehiza Zerbitzuari,

ingreso, amortizar el crédito de 250.000,00€ solicitado en base al acuerdo de Junta de 30 de marzo de 2021 a Caja Rural de Navarra.

Se explica además que la Junta espera ingresos superiores a años anteriores por la adjudicación de los dos lotes forestales que fueron objeto de subasta el día 5 de agosto.

Se pone encima de la mesa la posibilidad de abordar la rehabilitación de la casa del Valle.

Tras deliberarlo la Junta entiende que le es necesaria más información para tomar una decisión en firme y acuerda consultar con la asesoría económica del Gobierno de Navarra y con Caja Rural de Navarra las diferentes posibilidades creándose para ello en la siguiente sesión que se celebre un grupo de trabajo que lo formarán, como mínimo, representantes de 4 pueblos diferentes.

5. ADJUDICACIÓN DIRECTA DEL APROVECHAMIENTO FORESTAL SITUADO EN ARGARAIA.

A la vista de la existencia de lotes desiertos en pasados años se procedió a contactar con la Asociación Forestal FORESNA-ZURGAIA, de la que forma parte esta Junta, para solicitar que se procediese a la movilización de lotes que hubiesen quedado desiertos en subastas de años anteriores.

En este sentido el pasado 9 de junio del presente año se cursó invitación por parte de FORESNA-ZURGAIA a diferentes empresas maderistas para que presentaran ofertas al lote nº2 del plan de cortas 2018 de la Junta General del Valle de Roncal para el cual se presenta únicamente Servicios Forestales de Dios.

Siendo necesario el Informe favorable de validación económica emitida por parte del Servicio Forestal y Cinegético del Gobierno de Navarra y no habiéndolo recibido a fecha de la

beharrezkoa baita, baina ez da jaso bilkura honetarako. Batzorde Nagusiak erabaki du Argaraiako egur-saila (2.972m3 ler gorri) Servicios Forestales de Dios SLri esleitzea, betiere eskatutako txostena aldekoa bada.

Deialditik kanpo, eta aldez aurretik presakotzat joz, honako gai hauek aztertu dira:

SAN MIGEL BATZARRA

Batzordeburuak azaldu du Ansoko alkateak eskatu duela Batzordeak eta Ansoko udalak Puyetako baselizan egin ohi zuten San Migel batzarrari berriz ekiteko.

Gogorarazi da bere egunean Erronkaribarko Batzorde Nagusiak uko egin ziola San Migel Batzarra antolatzeari. Hona hemen erabakia, hitzez hitz:

"9.- SAN MIGEL BATZARRA. PUYETAKO BASELIZA

Gardeko udalaren erabakia irakurri da. Adierazi duenez, Puyetako batzarra balio historiko eta kultural handiko ekitaldi instituzionala da Batzordearentzat eta hari atxikitutako erakundeentzat. Azken urteotan Gardeko udalak antolatu izan du, baina Batzordea da horretarako erakunde eskuduna. Udalak dokumentazioa bidali du Batzordeak aurtengo urrian egin nahi den bilkura antolatu dezan.

Kontuan harturik ekitaldi instituzional hori antolatzea ez dela Batzordea Nagusiaren eskumena, Mankomunitatea arautzen duten ordenantzen II. Kapituluan -Batzorde

celebración de esta sesión se acuerda adjudicar el lote compuesto por 2.972m$^3$ de volumen total de pino sito en el paraje de Argaraia a Servicios Forestales de Dios S.L siempre y cuando el citado informe fuese favorable.

Fuera de convocatoria y previa declaración de urgencia se tratan los siguientes asuntos.

LA JUNTA DE SAN MIGUEL.

Se expone por parte del Presidente de la Junta que la alcaldesa de Ansó hace petición de retomar la Junta de San Miguel que se celebraba entre esta Junta y el Ayuntamiento de Ansó en la ermita de Puyeta.

Se recuerda la existencia de un acuerdo anterior adoptado en sesión por esta Junta General del Valle de Roncal, que se transcribe a continuación, donde se acordaba la desvinculación de la Junta General del Valle de Roncal de la organización de la Junta de San Miguel.

"9º.- JUNTA DE SAN MIGUEL. ERMITA DE PUYETA

Se da lectura al acuerdo del Ayto. de Garde en el que indican que la Ermita de Puyeta es un acto institucional de gran valor histórico y cultural para la Junta del Valle y las entidades vinculadas, que viene organizándose por el Ayto. de Garde, siendo la Junta la entidad competente para ello, remitiendo la documentación existente, al objeto de que sea la Junta la que se encargue de organizar la celebración de la siguiente reunión prevista para octubre del presente.

A la vista del escrito presentado, habida cuenta que no es competencia de esta Junta General la organización de ese acto institucional, al no quedar reflejado en el capítulo II de las Ordenanzas que rigen la Mancomunidad, referido a la Junta General del

Nagusiari eta haren funtzionatzeko moduari buruzkoan, jasota ez baitago; eta Gardeko udalak, Ansoko udalarekin batera, urtez urte deitu eta ongi antolatu duela, Batzorde Nagusiak ez du San Migel batzarra antolatuko."

Azaldu da erabaki hura hartzeko Mankomunitatea arautzen duten ordenantzak hartu zirela kontuan, eta bertan San Migel batzarra agertzen ez denez, ez antolatzea erabaki zen. Hala ere, adierazi da gaur egun Batzordeak ordenantzetan jasota ez dauden zenbait zerbitzu bere gain hartzen dituela.

Gaineratu da antzina Batzorde Nagusiak eta Anso herriak egiten zuten ohiko batzarra dela, Zaraitzurekin Zaltungorriko batzarra edo Hiru Behien Zerga egiten ziren bezala. Horietan, mugak zehaztu, zaintzaileak izendatu eta arazo komunak aztertzen ziren, konponbidea emateko. 2003an berriz ekin zitzaion batzar hori antolatzeari; orduko hartan 1615ean egindako akta -azkena omen- onetsi zen.

Horiek horrela, Batzorde Nagusiak aho batez erabaki du San Migel batzarraren antolaketa bere gain hartzea, Ansoko udalarekin batera, bi erakundeen arteko lankidetzarako aukera interesgarria delakoan.

<u>LANGILEAK KONTRATATZEA, 2022-2023 IKASTURTEAN HAUR HEZKUNTZAKO IKASTETXEA ABIAN JARTZEKO</u>

Haur Hezkuntzako ikastetxeko langileek bitarteko langile ez finko izaera dute zenbait urtez jarraian kontratu berdina izan baitute. Hori dela eta, irailean berriz ere kontratatu

Valle y modo de funcionar de la misma y que el Ayto. de Garde la ha venido convocando y organizando año tras año, con buen hacer, junto con el Ayto. de Ansó, se acuerda comunicar al Ayto. de Garde que esta Junta General no se va a encargar de organizar la celebración de la siguiente reunión de la Junta de San Miguel-Ermita de Puyeta."

Se expone que este acuerdo únicamente se remite a las ordenanzas que rigen la Mancomunidad del Valle de Roncal y que en base a ellas, por no mencionarse esta Junta de San Miguel se acuerda la desvinculación. Sin embargo, se expone que pocos de los servicios que actualmente ofrece la Junta son recogidos en dichas ordenanzas y no por ello la Junta deja de hacerse cargo de los mismos.

Se explica también que se trata de una Junta que históricamente se celebraba entre la Junta General del Valle de Roncal y Ansó, del mismo modo que se celebraba la Junta de Zaltungorri con el Valle de Salazar y el Tributo de las tres Vacas. En las mismas se trataban habitualmente la delimitación de las mugas, el nombramiento de guardas y se trataban las problemáticas comunes con el objetivo de darles solución. Se explica que se retoma esta Junta en el año 2003 donde se aprobó la última acta de la que se tenía constancia, la cual databa de 1615.

Por lo expuesto la Junta acuerda por unanimidad retomar la Junta de San Miguel haciéndose esta Junta junto con el Ayuntamiento de Ansó, cargo de la misma por entenderse como una oportunidad de colaboración interesante entre las dos instituciones.

<u>CONTRATACIÓN DEL PERSONAL PARA LA PUESTA EN MARCHA DEL CENTRO DE EDUCACIÓN INFANTIL. CURSO 2022-2023.</u>

ezean, langileek eskatu ahalko lukete lanera itzultzea edo kalte-ordaina ematea bidegabeko kaleratzeagatik.

Hori guztia jakinik, Batzorde Nagusiak aho batez erabaki du:

Iñigo Irurita eta Goizargi Barba aldi baterako eta lanaldi osoan kontratatzea Erronkaribarko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeko hezitzaile lanpostuetarako; eta Silvia Calvo aldi baterako eta lanaldi partzialean kontratatzea Garbiketa langile eta jantokiko laguntzaile lanposturako; Batzordeburuari eskumena ematea kontratuak sinatzeko.

Eta gai gehiagorik egon ez denez, 13:30ean Batzordeburuak bilkura amaitu du, honako akta hau idatzi, irakurri eta ontzat emana, bertaratutakoek sinaturik eta neronek, idazkariak, egiaztaturik."

Siendo necesaria la contratación de personal para la puesta en marcha de educación infantil, la Junta, teniendo conocimiento que el personal contratado para el funcionamiento del Centro de Educación Infantil tienen adquirida la condición de indefinidos no fijos por la reiteración en sucesivas campañas de los mismos contratos, con las causas que se derivan en el supuesto de que no hubiera llamamientos en septiembre que podrían reclamar o bien su incorporación o la indemnización por despido improcedente, acuerda, por unanimidad, contratar, para el curso escolar 2022-2023, a Iñigo Irurita y Goizargi Barba como Educador y Educadora, en euskera, con carácter temporal y a jornada completa, con destino al Centro de Educación Infantil de 0-3 años del Valle de Roncal y a Silvia Calvo como Auxiliar y Peón de Limpieza con carácter temporal y a tiempo parcial, facultando al Sr. Presidente para la firma de los contratos correspondientes.

Y no habiendo más asuntos que tratar, trece horas y treinta minutos del día señalado al inicio, por el Sr. Presidente se levanta la sesión, redactándose la presente Acta que, leída y hallada conforme, es firmada por todos los asistentes, conmigo el Secretario que certifico.